



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

207. INFORMAZIO BULETINA

2025eko apirila



Europar Batasunak
kofinantzatua

Cofinanciado por
la Union Europea

2025eko apirila

ALBISTEAK

“Europako funtsak genero-ikuspegiarekin komunikatzeari buruzko tailerra” egin da.

Tailerra Emakundek antolatu du.

2015ean, Europar Batasunaren Egitura Funtsetan Berdintasunari buruzko Erakunde arteko Lantalde Teknikoa (GTIFFE) sortu zen. Emakunde lan taldearen burua da, egitura-funtsen programen koordinazioan eta kudeaketan parte hartzen duten erakundeen ordezkariarekin (Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiak), eta erakunde horietako berdintasun-organoekin. 2021-2027 programazio-aldian, FEDER, FSE+, FEMPA eta FEADER funtsetan du eragina taldeak. Emakunderen koordinaziopean, lanean ari da genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa betetzea bermatzeko, EBn eta EAEn indarrean dagoen araudiarekin bat etorritik. Tailerra talde honen baitan antolatu da.

Apirilaren 2an egin den tailerrean, Europako funtsekin kofinantzatutako eragiketak hasteko, kudeatzeko eta gauzatzeko ardura duten organismo publikoetako ordezkariak eta komunikazio- eta agerikotasun-estrategiak gauzatzeko kontratatutako komunikazio-agentziek parte hartu dute. Era berean, eragiketa horiek egiten dituzten departamentuetako/zerbitzuetako komunikazio-arduradunak ere parte hartu dute.

Saioaren helburua izan da Europako funtsekin kofinantzatutako ekintzen eta EBren ekarpenaren komunikazioan eta agerikotasunean genero-ikuspegia txertatzeko bidean aurrera egitea, eta jarduketek emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa betetzen dutela bermatzeak duen garrantziari arreta berezia eskaintzea.

Tailerrean Maria Martín Barranckok parte hartu du, hizkuntza inklusibo eta ez-sexistan espezialista eta hizkuntzak berdintasunean duen eraginari buruzko hainbat saiakeraren egilea. Mariak komunikazioan genero-ikuspegia txertatzeko zereginean duen esperientziaren berri eman du, eta komunikazio-ekintzak planifikatzeko, diseinatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko jarraibide praktikoa eskaini ditu.

Hiriak senidetzeko 2025eko deialdia.

Deialdi honetarako aurreikusitako aurrekontua 5.000.000 eurokoa da.

"Town Twinning 2025" (Hirien Senidetzea) deialdia Herriarrak, Berdintasuna, Eskubideak eta Balioak (CERV) programaren barruan kokatzen da.

CERV programak kulturen arteko elkarrizketa sustatzen laguntzen du, hainbat nazionalitate eta hizkuntzako pertsonak bilduz eta jarduera komunitatean parte hartzeko aukera emanez.

Deialdi honen helburua da hainbat herrialdeetako herritarren arteko trukeak sustatzea, bereziki hirien arteko senidetzeari bidez, Europar Batasuneko ondare komunaren aberastasunaren eta aniztasunaren esperientzia praktikoa emateko eta etorkizun komunaren aldeko oinarria direla ohartarazteko. Deialdi honen

2025eko apirila

xedea da bitarteko sozioekonomikoetatik, sexuetatik eta herrialde desberdinetatik etorritako senidetutako hirietako pertsona ugari biltzen dituzten proiektuei laguntzea.

Hiriak senidetzearekin zerikusia duten jardueretan, besteak beste, tailerrak, mintegiak, hitzaldiak, prestakuntza-jarduerak, adituen bilerak, web-mintegiak, sentsibilizazio-jarduerak, kultura-ekitaldiak, jaialdiak, erakusketak eta abar sar daitezke.

Proposamenetan gutxienez onartutako bi herrialdeko udalerriek parte hartu behar dute, eta horietako bat, gutxienez, EBko estatu kide bat izan behar da.

Eskaerak aurkezteko epea apirilaren 9an hasi eta irailaren 17an amaituko da

Informazioa gehiago: [Deialdia](#) (gaztelaniaz)

Euskadiko 2021-2027 EGEF Programaren bertsio berria onartu da.

Europako Batzordeak martxoaren 20an onartu zuen.

Euskadiko 2021-2027 EGEF Programak Euskal Autonomia Erkidegoko estrategia, helburu politikoak eta lehentasunak jasotzen ditu, eta 2021-2027 programazio-aldirako Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) kofinantzatutako jardueren bidez gauzatzen da. Europako Batzordeak 2022ko azaroaren 29an onartu zuen programa.

Programaren aldaketak malgutasunaren zenbateko osoa behin betiko esleitzea barne hartzen du, zehazki Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024/795 STEP Erregelamenduaren (EB) 2. artikuluan aipatzen den, L1C lehentasun berriari («STEP trantsizio digital eta adimenduna») eta 1.6 helburu espezifiko (HE) berriari («Europarako Teknologia Estrategikoen Plataformaren (STEP) helburuei laguntzen dieten inbertsioei laguntzea»). Aipaturiko erregelamendu honen helburua teknologia kritikoetan egiten diren inbertsioak babestea da, Europako industriaren subiranotasuna eta epe luzeko lehiakortasuna indartzeko.

Aldaketa horrek, martxoaren 20an onartutakoak, funtsak berresleitzea dakar berekin. Horrela, EGEF laguntzaren terminoetan, HE 1.1 "Ikerketa industrialeko eta garapen esperimental lehiakorreko enpresa I+G+B proiektuak eta/edo izaera estrategikoko garapen esperimendaleko proiektuak" delakoaren finantza-esleipena 26,2M €-tan murriztu da, eta HE 2.5aren ("EAEko ur-hornidura") finantza-esleipena, berriz, 6,8M €-tan kendu da. Berresleipen horren ondorioz, produktibitate- eta emaitza-adierazle batzuk eta esku hartzeko eremuak aldatzen dira.

Informazioa gehiago: [Programa](#) (gaztelaniaz)

Uliazpi Fundazioaren (Hondarribia) Zubietako zentroko 3. etxean zoru erradiatzaile bidezko berokuntza instalatzeko obrak burutzeko lizitazioa egin da.

Proiektu hau Europar Batasunak finantzatzen du (Next Generation funtsak), Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (BEEP) bidez.

2025eko apirila

Foru Sektore Publikoko eraikinetan energia aurreztea eta energia berriztagarrien aprobetxamendua sustatzera bideratutako energiaren arloko jardueren barruan sartzen dira obrak. Jasangarritasun Departamentuko Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritza ari da lan horiek egiten azken urteotan.

Kontratuaren xedea berogailua instalatzea da, bero-ponpa sortuz, Uliazpi Fundazioaren (Hondarribia) Zubieta zentroko 3. etxea zoru erradiatzaileko instalazio berria hornitzeko, orain erabiltzen den berokuntza sistema ez baita nahikoa. Proiektu honen bidez, eraikinaren ur bero sanitarioaren eta berokuntzaren eskaerari erantzun nahi zaio, errentagarritasun ekonomikoko marjina bideragarri batzuen barruan.

Uliazpi Fundazioaren Zubieta Zentroan integratutako etxeak adimen-urritasuna duten pertsonentzako bizileku dira.

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 372.130,41 eurokoa da, eta eskaintzak aurkezteko epea 2025ko maiatzaren 5ean amaituko da.

Proiektu hau Europar Batasunak finantzatzen du (Next Generation funtsak), Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (BEEP) bidez. Zehazki, plan horren 7. osagaiaren barruan (1. inbertsioa), "Energia berriztagarrien garapena". Europar Batasunaren finantzaketa 28.001,40 eurokoa izango da.

Informazio gehiago: [*Kontratazio Plataforma*](#).

Berreskuratze Planaren jarraipena autonomia-erkidegoa.

Elisa tresnak Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren gauzatze-zifrak ikusteko aukera ematen du.

ELISA datuak bistartzeko tresnak aukera ematen du lizitazioen eta dirulaguntzen deialdien jarraipena egiteko, bai eta haien ebazpenarena ere, funts hauei dagokienez:

- Estatuko Administrazio Orokorrak zuzenean kudeatutakoak.
- Konferentzia sektorialen bidez autonomia-erkidegoei transferitutakoak.
- Toki-korporazioek gauzatutakoak.

Tresna honek finantzaketa jaso duten enpresen eta familien kopuruari buruzko informazioa ematen du, bai eta enpresa onuradunen tamainari eta Berreskuratze Planaren definitutako jarduketa-palanketan egindako inbertsioei buruzkoa ere.

Era berean, autonomia-erkidego bakoitzean kudeatu eta gauzatutako funtsen xehetasuna ematen du, baita finantzaketa jaso duten enpresen kopurua eta proiektuen sektore-banaketa ere.

Gardentasun-ekimen horren esparruan, betearazpen-datu publikoak eta edonork eskura ditzakeenak zehatz-mehatz helarazteko, ELISAk Berreskuratze Planak autonomia-erkidegoetan izan duen eraginaren xehetasun kualitatiboagoa duten *lurralde-fitxak* ditu (*Euskal Autonomia Erkidegoko fitxa*).



2025eko apirila

EUROPAKO DEIALDIAK

NEXT GENERATION FUNTSEKIN FINANTZATUTAKOAK

“Lehen lanbide-esperientzia administrazio publikoetan” izeneko Programaren diru-laguntzen onuradunak, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. [**Informazio gehiago.**](#)

Dirulaguntzen deialdia, lurralde-mailako toki-erakundeentzat eta lurralde-mailako toki-erakundeen mendeko erakunde publikoentzat, 2025eko Aula Mentor bidez prestakuntza-gela irekiak, malguak eta urrutikoak mantentzeko. Eskabideak aurkezteko epea maiatzaren 26an amaituko da. [**Informazio gehiago.**](#)

[**“EUROPAKO FUNTSAK GIPUZKOAN” webgunea**](#)